


Armand David: ezpeletar bat pandaren erresuma ikertzen

Kepa Altonaga

Biologia Zientzietan doktorea

Azaro honetan bete dira ehun urte Armand David naturalista handia hil zela. Tamalez, izen hori nahikoa ezezagun dugu gure artean, nahiz eta, Manex Hiriart-Urrutik aspaldian idatzi zuenez (*Eskualduna* astekarian, 1900. urtean), *Eskual-herritik behinere jalgi diren jakintsun handienetarik bat* izan, eta panda handia aurkitu zuen, urruneko Txina hartan, beste hainbat eta hainbat landare eta animalia berrirekin batera. Frantziako lehenengo eboluzionistetariko bat izateaz gainera, bere ekarpenak oso munta handikoak izan ziren biogeografiaren garapenerako.



ARTXIBOKOA

Armand David 1862an iritsi zen Txinara, eta bertan hamabi urtez bizi izan zen, egotaldi bitan banatuta. Tarte horretan hiru esplorazio-bidaia egin zituen, hainbat eta hainbat animalia eta landare bilduz. Irudian Armand David desberdin bi dauzkagu. Bata, Txinatik itzultitakoan, 1882ko gizon heldua. Bestea, txinatar itxurakoa, hango biztanleekin bereizteazina ia.



K. ALTONAGA

Orein bat abiapuntuan

Jean-Pierre-Armand David Halsouet Ezpeletan jaio zen, Lapurdin, 1826ko irailaren zazpian, *Bergara* etxean. Aita, Fructueux-Dominique-Génie David, bertako medikua zen, eta auzapeza ere sasoi batean. Berorrek sortu zion naturzaletasuna eta, izan ere, hainbat eta hainbat kontu irakatsi zizkion. Ama, Rosalie Halsouet, Baionakoa zen, eta familia onekoa, antza.

Armand David 1850. urtean apaiztu egin zen Parisen (24 urte) lazarista modura. Italiako Savonan egon zen irakasle 1861 arte, eta 1862an allelatu zen Pekinera (36 urte), misionista gisa. Dena dela, Txinara Pariseko Natur Historiako Museo-ko irakasle askoren enkarguekin iritsi zen, bertako fauna eta florako aleak bildu eta Frantziara bidal zitzaiz.

Hasiera batean hizkuntza eta bertako ekanduak ikasten aritu zen, batez ere Pekinen eta inguruetan joan-etorri txikiak eginez. Ibilaldi horietan bilduma zoologiko eta botaniko oso interesgarriak osatu zituen, eta Parisera bidali. Museoko adituak txundituta geratu ziren: batetik Txina ezezaguna zen garai horretan, eta beraz, jasotako guztia ezinago interesgarria begitandu zitzairen. Baina, bestetik, Armand Davidengan biltzaile adoretzu, trebe eta jantzia ikusi zuten. Sekulako pagotxa, beraz.

Urte horietako aurkikunderik garrantzitsuena esamesa bati zor dio Armand Davidek. Pekinen oso zabaldua zegoen txineraz *sseu-pou-siang* zeritzonaren ospea, baina animalia hori inork ez zuen ezagutzen, enperadorearen parkean bizi baitzen soil-soilik, eta bertara sartzea heriotza-zigorraz punituta zegoen. Nolanahi, parkeko soldadu tartariarrak diruz polito koipatu zituen, eta *sseu-pou-siang* misterioitsu horren aldra ikusi zuen parke barruan, ehunen bat ale. Orein-espezie ezezagun batekoak zirela konturatu zen, eta parke inperialetik kanpo ez ziren beste inon bizi.

Diru gehiagoz orein biren eskeletoak eta larruak eskuratu zituen. Parisera bidalita, hango Alphonse Milne-Edwards-ek oso espezie interesgarritzat jo zuen: *Elaphurus davidianus* izen taxonomikoa eza-

Orduko euskalduna


Txinan barrena neke handiz lortutako ekarpenek goratu zuten Armand David aita ezpeletarra zientziaren gailurrik gorenetara. Dena dela, Txinako esplorazio-bidaien oztopo eta zailtasunak gainditzeko arrazoi nagusia umetan benetako euskaldun gisa altxatua izatea izan dela dinosku Armand Davidek: *cette première éducation de vrai basque*. Eta zer da hori? Zelan hezurmamitu *vrai basque* hori? Jean Barbier idazle baxenabartarrak *Supazter xokoan* 1924ko liburuan honelaxe azaldu zuen: *Eta zerk egiten du Eskualduna zinezko Eskualdun? Elizak, Etxeak, Hil-herriak, Mintzairak. Horietan datza Eskualdun arima guzia.*

Jakina, Barbierren eta bai Armand Daviden euskalduntasun hori, beste ezer baino gehiago Frantziaren eta fedearen babeserako magala da. Eta izan ere, umetako zinezko euskaldunaren heziketa gorabehera, aita Davidek Frantzia du aberri, aberria aipatu behar duenero, nahiz eta bidaietako jazokuneen kontaktuzuean europar modura agertu gehienetan, inplizituki bada ere. Orduko giroa gogorazteko, berriro ere Manex Hiriart-Urrutiren aipu laburtxo bi ekarriko ditut, ze, testuingurutik kanpo agertu arren, nahikoa argiro utziko baitigute XIX. mendeko euskalduntasunaren nolakoa. Bata, *nehor eztaukagu Frantzian gu euskaldunak baino frantses hoberik*. Biga, *zer uste lukete, ala eskualdun tzarretarik frantses onak egin (nahi dituzte)?*



K. ALTONAGA

"Armand David Ezpeletako etxe honetan jaio zen 1826an. Bertan ezarritako plakak ikerlari handia izan zela gogorarazten digu."



K. ALTONAGA



A. ELOSEGI

Aita Daviden oreina. Espezie hau enperadorearen parkean aurkitu zuen Armand Davidek, eta txiripaz ez da suntsitu gure begien aurrean. Zorionez, gaur egun espeziea osasuntsu dago giltzapeko hazkuntza-programei esker, eta berriro sartzeko saio batzuk egin dira Xangai inguruetan.

rri zion. Harrezkero, Pekineko enbaxadak hainbat ahalegin egin zituen aita Daviden oreinaren banako biziak lortzeko, eta izan ere, gorabehera batzuren ostean, bikote ugaltzaile bat erdietsi zuen. Eta, geroago, baita Britainia Handiak eta Alemaniak ere, den-denek Armand Daviden laguntzari esker. Horrela, bikote gutxi batzuk Europako zootetara iritsi ziren, eta bai bertan nahikoa erraz ugaltu ere. Areago, bertoko oreinarekin ere hibridatu zuten aita Daviden oreina. Alabaina, ardura faltaz edo, konturatu orduko Europako aita Daviden orein guztiak hil egin ziren. ➔



Dena dela, aita Daviden oreinaren etorkizunari buruzko benetako kezka ez zen etorri harik-eta Pekineko parke inperialeko orein-aldra suntsitu zen arte. Izan ere, 1900. urtean, Armand Daviden heriotzaren urte berean, boxerren matxindada gertatu zen, eta, *55 days at Peking* filmean ikusi genuenez, nazioarteko indar "bakegilea" (zelanbait esateko) bidali zuten mendebaldeko potentziek, Charlton Heston-en agindupean. Filmeak filme, zoriarekin indar bakegileak **jan** egin zituen parke inperialeko aita Daviden orein guzti-guztiak, eta beraz, espezie zientziarako aurkitu berria, beste askoren patu triste berberagaz suntsitu berria bilakatu zen, mende-laurden batean.

Filmea ikusi eta gogoratzen duzuenok nahikoa erraz bisualizatuko duzue Armand Davidek Txinan aurkitu zuen kontrako giroa, etsai eta xenofobikoa. Kasurako, ezin dugu ahaztu, urte batzuk lehenago Europako potentzia kolonialek Txina "opioaren gerlan" garaitu zutenik, etab., etab. Kanpotarrekiko gorroto horrek sustrai luzeak zeuzkan, eta, besteak beste, kanpotarrek eurek ereindakoa zen. Ikusi Eusebio Bengoa Akordagoitia misionista bizkaitarrak zelan kontatu zigun 1913an: *...oin irurogei urte inguru, ingelesak eta prantzesak sartu jakeesan emen gure nai gureez, tirotiroka.*

*"balinbazen gizon
ixilik, bere buruaz
guti hartua zenik,
eta
bizkitartean
hedadura eta
jakitate handiko
gizonik, hura izan da
Armand David"*

Hiriart-Urruti



Jende guztiak ezagutzen du irudiko landarea, alegia, *Buddleja davidii* tximeleta-zuhaixka. Ziur aski, landare hori izango da Armand Daviden ekarpen osotik gugandik hurbilen dagoen elementua, izan ere, azken urteotan ia edonondik zabalduz doa.

Elaphurus davidianus, esan dugunez, suntsitu egin zen bai Europako zooetan eta bai Pekineko parke inperialen ere. Nolanahi, hori gertatu aurretik, zorionez Bedford Dukeak dozena luze bat ale batu eta askatu zituen bere soroetan, eta bertan, nahikoa ondo ugaltu ziren, oztopoak oztopo. Egun, espeziea osasuntsu dabilela dirudi, eta Txinan berriro sarrarazi da Xangai inguruan.

Gorputza zientziari donatu-edo

Esan bezala, Parisera bidali zuen material biologikoaren kalitate apartak liluratu utzi zituen Natur Historiako Museo-ko adituak, eta berorien eraginez Armand David liberatu egin zuten hortik aurrera Txinan barrena laginak eta datuak batzeko. Lazaristen fraideburuari aita David lan ebanjelikoetatik askatzea eskatu zioten, lan naturalistikoetan buru-belarri murgil zedin. Eta halaxe, 1866tik aurrera, Armand David bidazti bilakatu zen Zeruko Inperioan barrena, Pariseko Natur Historiako Museoaren kontura. Hiru espedizio nagusi egin zituen, Pekinetik abiatuta: bata Mongoliarantz, bigarrena Tibeterantz, eta azkena Txina zeharkatuz, iparretik hegorantz.

Kilometroan ez ezik, era askotara neur daiteke ibilaldi horien ahalegina. Manex Hiriart-Urrutiren hitzetan esateko: *Nork daki, hiru aldi hoitan zenbat neke, izerdi,*

gose eta egarri, zenbat barmeko goihendura jasan duken han, jendaki arrotz eta askotan etsai heien artean? Bidelapurrak, matxinoak eta horrelakoak aparte utzita ere, edota erreumatismoa, tifusa, disenteria eta malariak gaixotu zen aldiez gain, adi!, hiru biderrez pozoitu ei zioten tea: horrelaxe dinosku Armand Davidek berak idatzitako bidaia-egunkarietan. Izan ere, azken bidaiaren atzeneko partean hain larriki gaixotu zen, oleazio santua eman behar izan baitzioten, hil-zorian. Denetarik pairatu zuen, beraz.



ARTXIBOKOA

Panda handiaren irudi hau Pariseko Natur Historiazko Museoko adituek ondu zuten, Armand Davidek bidali zituen gorpuzkinetan oinarrituta. Hauxe da pandaren lehen irudi homologatua.

“*Txinara misiolari joan arren, zientzialari gisara aritu zen*”

Pandak ehizatzen

Inolako zalantza barik, Tibeteranzko bidaia da ospe gehien eskuratu ziona, berorretan egin zituen-eta aurkikunderik aipagarrienak, panda famatua, besteak beste. Nolanahi, Armand David ez zen Tibeteraino iritsi: Moupin printzerriraino ailegatu zen, eta izatez, printzerri hori lur promestua izan zen Armand Davidentzat, han aurkitu baitzituen animalia eta landararik interesgarrienak. Bederatzi hilabete igaro zituen bertan (1869ko martxotik azaro arte), eta eurotariko batzuk nahikoa kili-kolo ibili zen osasunez.

Moupinera ailegatu aurretik, jadanik Sichuan probintziako hiriburuan, Chengdu-n alegia, hartz zuri bat aurkituko zuela esan zioten, besteak beste, bertako gotzainak. Dena dela, Armand David ez zen guztiz komentzituta gelditu, eta delako hartz zuria, benetakoa izatekotan, *Ursus thibetanus* Himalaiako hartz beltzaren barietate albinoren bat izango zela pentsatu zuen. Alabaina, handik laburrera, Moupineko etxagun baten ezkaratzeko horman eskegita ikusi zuen aldeztu aurretik aipatu zioten hartz zuri (eta bai beltz) haren larrua.



A. ELLOSEGI

Eta beste argazki honek panda bizia erakusten digu.

Hori dela-eta, ale bat eskuratzeko gura bizia sartu zitzaion, eta izan ere, horixe agindu zien bere ehiztariei: hartz zuri-beltza nahi zuen ahalik eta lasterren! Armand Daviden bidaia-egunkariak dinoskunez, 1869ko martxoaren 23an itzuli ziren ehiztariak, hamar egunez alden du eta gero, eta besteak beste “hartz zuri” gazte bat ekarri zioten. Harrapatu, bizirik harrapatu zuten pataria, baina, tamalez, hil egin zuten errazago garraiatzearen. Oso-osu karu saldu zioten delako hartz zuria.

Izatez zuria zen ia osorik, salbu-eta lau soin-adarrak, belarriak eta begi-inguruak, beltzak zirenak. Armand Davidek espezie berritatz jo zuen ikusi eta atoan, eta areago, urtsidoen taldekotzat jo zuen, hau da, hartzen kideztat.

Geroago, apirilaren batean beste panda handi heldu bat saldu zioten ehiztariek, eta apirilaren 15ean beste bat. Gainera, *Ursus thibetanus* hartz beltza baino errazago harrapa zitekeela esan zioten, eta bai askoz urriagoa zela ere, eta harrigarriena begitandu zitzaiona: berak animalia zarrastaria zela uste bazuen ere, banbu-hostoez elikatzen zen, kontatu ziotenaren arabera.

Dagoeneko aipatu dugunez, Armand David atoan jabetu zen egindako aurkikundearen garrantziaz, eta luzaro barik espezie berriaren behin-behineko deskribapena bidali zuen Parisera, al bait arinen argitaratzeko. Horrela izanik, berea izan zen panda handiaren lehen aurkezpen zientifikoa, eta hori dela-eta, aita David da espeziearen deskribatzailea, naturan aurkitu zuen lehen mendebal-



ARTXIBOKOA

Normalean ornodunak bakarrik aipatu arren, ornogabe-mordoa bildu zuen Armand Davidek, batez ere, tximeleta, kakalardo, burrunzi eta barraskiloak. Esate baterako, *Armandia thaidina* tximeleta oso preziatua da bildumarien artean.

detarra izateaz gain. Espezie aurkitu berriari *Ursus melanoleucus* izen binomiala ezarri zion, hartz zuri-beltza zelakoan; gaur egun *Ailuropoda melanoleuca* erabiltzen da.

Munduko animalien artean panda handia da bakanenetakoa: mila panda baino gutxiago daude denetara, eta, dirudenez, iraganeko animalia bilakatuko da etorkizun hurbilean. Baina, animaliarik urrienetarikoa izatez gainera, ospetsuenetakoa ere bada. Horretarako arrazoi nagusiak, beharbada, bi dira, alegia, bere itxura onkote zuri-beltza eta duen etorkizun beltz-beltza. Peluzeko hartz koitadu eta laztanbera dirudiena, animalia karismatikoa da gaur egun: World Wildlife Fund erakunde kontserbazionistak ikur modura hautatu zuen, eta nahikoa famatu bihurtu da. Bestalde, Britainia Handiko jostailu-denden kate batek 30.000 pandatik gora saltzen ditu urtean; jostailuzko panden salmenta osoa 1.640.000 \$-etako da munduan.

Urre-tximino sudurmotzak argitu ahal diguna

Badirudi pandak gaineratiko guztia eklipsatuko duela Armand Daviden bizitzan, baina ez da horrela. Esate baterako, panda handia aurkitu zuen egun berean ehiztari berberak *Pteromys alborufus* katagorri hegalaria eroan zioten, besteak beste. Aipatu dugunez, Moupin lur promestua izan zen Armand Davidentzat. *Macacus thibetanus* tximino ere Moupinen topatu zuen. Bidaia-egunkarian dinoskunez, zirrargarria gertatu zitzaion, agure-itxurako tximino hori odolusten eta azken hatsa ematen hurbil-hurbiletik ikustea, elur zurian tiro batez botata.

“panda izan da
Armand Davidi
ospe gehien
eman dion
aurkikundea”




ARTXIBOKOA

Urre-tximino sudurmotzak ohorezko lekua merezi du Txinako altxor zoologikoen artean. Arrisku larrian dago tximino hosto-jale hauen espeziea, izan ere, aspaldidanik ehizatu dira erreumatismoaren kontrako sendagai direlakoan. Nolanahi, habitat-galera dugu egungo arrisku-faktore nagusia.

1869ko maiatzaren 4an ehiztariak sei tximino ekarri zizkioten, espezie orduarte ezezagun batekoak zirenak. Tximino horiek, urre-tximino sudurmotzak, 3.000 m-ko mendietako zuhaiztietan bizi ziren, artean elurrez zuritutako lekuetan.

Pariseko Museoa Alphonse Milne-Edwards-ek harrituta begiratu zuen animalia: aurpegia berde-urdinxka edota turkesa-kolorekoa zeukan, eta sudurra motz-motza; buru-aldea laranja-kolore bizikoa. Bizkarra zetazko ilaje urrekaz estalia. Elurretako tximino horren koloreak ikustean, Milne-Edwards-ek XVI. mendeko koadro bat gogoratu zuen, kortesana ospetsu bat irudikatuta zeukana. Delako kortesana hark, hots, Roxellana gazte errusiarra, adats gorri eta orkatiletarainokoa zeukan, eta sudurra motz eta erakargarria. Roxellana bahitu egin zuten pirata turkoek Europako ekialdeko Galitzian, eta geroago saldu, esklabo modura Suleiman Handia sultanaren harenerako. Roxellanaren begitarrea harro eta bizia ei zen, kolore urdin argiko begi handiduna, eta aho txiki eta ezpain gurikoa. Milne-Edwards-i urre-tximinoaren eta sultanaren begikoaren sudur motzak antz-antzekoak begitandu zitzaizkion, eta kilikagarria iritzi zion antz horri. Eta horrela, zientziarako *Rhinopithecus roxellana* izendatu zuen.

Urre-tximinoaren beste kontu batzuk bazterrerara utzita, nahikoa deigarria den datu bat ekarriko dugu hona. Eta zein da, ba, datu hori? Ba, inoiz *Rhinopithecus roxellana* urre-tximino eta yetiaren mitoaren azalpen modura erabili izan dela. Izan ere, yetiaren mitoarentzat azalpen arrazionalen bat aurkitu guran, izandako begi-ukaldiak eta elurretan topatutako oinatzak tximino-espezieren batenak izan zitezkeela plazaratu zen 1937an, eta ideia horrek eztabaida zientifiko luzea sortarazi zuen. Hari horretan, British Museum-eko Guy Dollman-ek Himalaia inguruan tximino-espezie bi daudela ohartarazi zuen, eta biak oinatz-egile posibleak izan zitezkeenak, bata *Semnopithecus entellus* langure sakratua, eta bestea aita Daviden *Rhinopithecus roxellana* urre-tximino.



Munduan 48 faisai-espezie daude, eta eurotariko bederatzi Moupin printzerrian aurkitzen dira, esate baterako *lady Amherst faisai* (a), *urre-faisai* (b) eta *Swinhoe faisai* (c). Faisaiak oso garrantzitsu suertatu ziren Armand Daviden pentsakera biologikorako, euroi esker eboluzionista bihurtu baitzen.

Sinesgogortasun osoz izan arren, eta zeharka izanda ere, Armand Davidek yetiaren aipamena-edo egin zuen bere egunkarian, txinatarren izakera zientziatz-apartekoa erakusteko. Zera dinosku: *Denek esango dizute orangutana hemen bizi dela, mendietan; jen-sioung, giza hartza, deitzen dute*. Esan gabe doa, *jen-sioung* gizon bilotsu hori yetia bide da, eta ez orangutana.

Eboluzionista faisaiei esker Orain arteko joan-etorrikoaz 1870. urtera iritsi gara. Moupinetik itzultzean, osasunez oso eskas dagoela-eta, eta Tientsin-eko misio lazarista erabat masakratuta aurkitzearen ondorioz, Armand Davidek Europara itzuli behar du sendatzera. Eta hori hain justu, gerla frankoprusiarraren egunetan. Hori dela-eta, Italian gelditu zen, aspaldiko ikasle baten etxean, hots, Giacomo Doria markesarenean. Eta bertan, Charles Darwin-en *Espezieen jatorriaz* irakurri zuen, 1859ko liburua.

1872an berriro Txinan dago hirugarren esplorazio-bidaiari ekiteko prest. Txinan barrena zebilela liluratuta gelditu zen

hango faisaiekin. Egiatan ikusgarriak begitandu zitzaizkion hasieratik bertatik. Hirugarren bidaiaren egunkarian dinoskunez, ia 40 espezie dira denetara, batez ere Tibet inguruan banatuta; endemikoak dira, hau da, soilik han bizi dira eta beste inon ez.

“Armand David darwinismoaren aitzindaria izan zen Frantzian”

Gertaera horretan oinarrituta, Armand Davidek dinoskunez, elkarren ondoko, aldameneko, espezie horiek, banan banan kreatu eta bertan kokatuak izan direla pentsa daiteke. Alabaina, honela segitzen du, ez litzateke arrazionalagoa izango pentsatzea, behin-eta Jaungoikoak oinarritzko faisai lur gainean kokatu eta gero, oinarritzko faisai horrek hainbat eraldaketa jasan dituela, eta, ondorioz,

arrazatan eta barrietatetan bereiztu dela, hau da, espezie berriak eta genero berriak sortu direla, eta jatorritzko gunearen inguruan banatu direla?

Parraplada luzea daroat honezkero, eta ez dakit noraino nekatu zaitudan, baina, konturatu al zara arestian aipatu dudaren transzendentzia? Armand David, 1875ean argitaratutako liburuan eboluzionista gisa agertzen da, eboluzionismo indargetu batez nahi badugu, baina, Darwin-en ildoan edonola ere. Harrigarria deritzot horri arrazoi birengatik. Batetik, ez dezagun ahaztu, Armand David XIX. mendeko abadea da. Bigarrenik, arrazoi historiko korapilotsuak direla-eta, zientzialari frantsesek berandu samar onetsi zuten eboluzionismoa. Armand David aitzindaria izan zen.

Hauxe da, nolabait, *Eskual-herritik behinere jalgi diren jakintsun handienetarik bat*, Armand David, pandaren aita, 1900. urteko azaroaren 10ean Parisen hil zen naturalista ezpeletar handia. ▣

GAIAN SAKONTZEKO
 BISHOP, G. *Travels in Imperial China. The Intrepid Explorations and Discoveries of Père Armand David*. Cassell. London. 192 pp. 1990.
 BOUTAN, E. *Le nuage et la vitrine. Une vie de Monsieur David*. Ed. Raymond Chabaud. Bayonne 372 pp. 1993.
 DARANATZ, J.B. *Armand David (1826-1900). Gure Herria*, 1930: 54-68, 117-133, 322-333, 547-559; 1931: 169-184. 1930-31.